



bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

PRENTSA-OHARRA

BGP-KO KONTSEILU NAGUSIAK METRO BILBAO, EUSKOTREN ETA TRANBIAN 3. LINEA ABIAN JARRITAKOAN EZARRIKO DIREN TITULU ETA TARIFA BERRIAK ONETSI DITU; ALDUNDIAK PARTE HARTU DU EZARPEN HORRETAN, BIZKAIBUSEKO GAZTE-TXARTEL BERRIEKIN

- Modu anitzeko txartel berriak sinplifikatuko dira, eta txartel berak erabiliko dira Bizkaiko garraiobide handienetako hirutan (Metro Bilbao, EuskoTren eta Bilboko tranbian).
- Titulu eta tarifak aldatu egin dira datorren apirilean 3. linea funtzionatzen hasiko delako. Bizkaia egituratuko duen linea berria izango da, eta behin betiko kenduko ditu hiru lineen arteko ontzi-aldaketa; horrenbestez, Alde Zaharreko lehenengo geltoki intermodala izango da, eta parametro berekin funtzionatuko dute linea horiek.
- Titulu eta tarifa berriek aldi baterako txartelak erabiltzen dituzten bidaiariengan izango dute eragina; bidaiari horiek guztizko kopuruaren % 22 dira (gainerako % 78ek diru-txartelak erabiltzen dituzte); hots, 45.000 pertsona hilean. Aurreikusi da zenbatekoa % 20 haziko dela urtebeteko epean.
- Bizkaiko Foru Aldundiak ezarpen horretan hartu du parte modu anitzeko Gazte-txartel berriak sartuz; gazteek Bizkaibusean ere erabili ahal izango dituzte txartel horiek, Metro Bilbao, Euskotren eta tranbiaz gain.
- Tarifa berriek lehenengo urratsa emango dute tarifa-integraziorantz. Oso aproposa da, 3. linea abian jarriko den heinean, baita beharrezkoa ere; izan ere, Metro Bilbao, EuskoTren eta Bilboko tranbiak Bizkaiko Lurralde Historikoaren garraio publikoaren % 58,1 mugitzen dute; Bizkaibusekin batera, % 74.
- Modu anitzeko txartel berriak 3. linea abian jarri baino hilabete lehenago egongo dira salgai. BGPk informazioa indartuko du jendeari arreta emateko bulegoetan, erabiltzaileak zonakatzea mantenduko duen sistema berrira ohitu daitezzen.

Bilbo, 2016ko abenduaren 19a

Bizkaiko Garraio Partzuergoko (BGPko) Kontseilu Nagusia Bilboko egoitzan bildu da gaur eguerdian, eta modu anitzeko titulu berriak eta tarifa onuragarriagoak indarrean sartzea onetsi du; hori guztia datorren apirilean Metro Bilbaoko 3. linea abian jarriko dutelako. Bizkaia egituratuko duen linea berria izango da, eta behin betiko kenduko ditu hiru lineen arteko ontzi-aldaketa. Alde Zaharreko lehenengo geltoki intermodala izango da, eta parametro berekin (txartel eta tarifak) funtzionatuko dute 1., 2. eta 3. lineek.



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

Modu anitzeko txartel berriak sinplifikatuko dira, eta txartel berak erabiliko dira Bizkaiko garraiobide handienetako hirutan (Metro Bilbao, EuskoTren eta Bilboko tranbian). Halaber, Bizkaiko Foru Aldundiak ezarpen horretan hartu du parte modu anitzeko Gazte-txartel berriak sartuz; gazteek Bizkaibusen ere erabili ahal izango dituzte txartel horiek, Metro Bilbao, Euskotren eta tranbiaz gain.

Titulu eta tarifa berriek aldi baterako txartelak (ez-pertsonalak edo -nominalak) erabiltzen dituzten bidaiariengan izango dute eragina; bidaiari horiek guztizko kopuruaren % 22 dira (gainerako % 78ek diru-txartelak erabiltzen dituzte); hots, 45.000 pertsona hilean. Aurreikusi da zenbatekoa % 20 haziko dela urtebeteko epean. Lehenengo urratsa izango da Bizkaiko tarifa-integraziorantz. Oso aproposa da, 3. linea abian jarriko den heinean, baita beharrezkoa ere; izan ere, Metro Bilbao, EuskoTren eta Bilboko tranbiak Bizkaiko Lurralde Historikoaren garraio publikoaren % 58,1 mugitzen dute; Bizkaibusekin batera, % 74.

Zeintzuk dira modu anitzeko txartel berriak?

Sistemak guneka funtzionatzen jarraituko du. Modu anitzeko txartel berriek aldi baterako izaten jarraituko dute, baliodunak izango dira 30 egunez eta bi bertsio izango dituzte: bat gizartearentzako oro har eta beste bat gazteentzako. Bertsio bakoitzak bi aukera izango ditu: batek bidaia mugatuak egitea ahalbidetuko du; besteak, ostera, bidaia mugagabeak. Gauzak horrela, modu anitzeko titulu berriak honako hauek dira: BIDAI 50, BIDAI 70 eta GAZTE 70, bidaia mugatuei dagokienez; eta BARIK URREA eta BARIK URREA GAZTE, bidaia mugagabeei dagokienez. Hortaz, aldi baterako txartel pertsonal edo jabe-txartel guztiak desagertuko dira atxiki diren moduetatik; halaber, BGPko modu bakarreko Gazte-txartelak desagertuko dira atxiki diren moduetatik (Metro Bilbao, EuskoTren eta Bizkaibusetik).

Non erabili ahalko dira modu anitzeko txartel berriak?

Gizartearentzako oro har direnek (BIDAI 50, BIDAI 70 eta BARIK ORO) Metro Bilbaon, EuskoTrenen, Bilboko tranbian eta Larreinetako funikularran bidaiatzeko balioko dute. Gazteentzako direnak (GAZTE 70 eta BARIK URREA GAZTE), aipatutako garraiobideez gain, Bizkaibuseko linea guztietan ere erabili ahalko dira.

Noiz sartuko dira indarrean modu anitzeko txartel berriak?

Modu anitzeko txartel berriak datorren apirilean 3. linea abian jarri baino hilabete aurrerago eskuratu ahalko dira. Hala eta guztiz ere, BGPk informazioa indartuko du jendeari arreta emateko bulegoetan, erabiltzaileak sistema berrira ohitu daitezen.

Modu anitzeko txartelen abantaila handia honakoa da: unera arte, aldi baterako titulu guztiek (Metro Bilbaoren hileko txartela, Bizkaibuseko Gazte-txartela, EuskoTreneko hileko txartela eta Metro Bilbaoren Super 50) garraiobide batean soilik erabil zitezkeen; gaur egun, ordea, titulu berriarekin erabiltzaileek atxikitako modu guztietan bidaiatu ahalko dute erakunde-arte lankidetzaren erabaki eta esfortzu handiari esker. Ondorioz, Bizkaiko garraio publikoa erabiltzen duten herritarrei erosotasun gehiago eta zerbitzu hobea eskainiko zaie.



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

Lehenengo urratsa tarifa-integrazioantz

Beste behin, ildo horretan, Bizkaiko Garraio Partzuergoa proiektu handi honetan nahiz tarifa-integrazioantz lehenengo urratsean parte hartzen duten erakunde eta operadore guztiak batzeko aukeratu den plataforma da. Titulu eta tarifa berriek aldi baterako txartelak erabiltzen dituzten bidaiariengan izango dute eragina; bidaiari horiek guztizko kopuruaren % 22 dira (gainerako % 78ek diru-txartelak erabiltzen dituzte); hots, 45.000 pertsona hilean. Aurreikusi da zenbatekoa % haziko dela urtebeteko epean.

Onurarik handiena hauei egingo die: modu anitzeko txartelak erabiltzen dituzten erabiltzaileei, 70 bidaia baino gutxiago egiten dituzten gazteei, bereziki 4. eta 5. gunetarako txartelak erosten dituztenei, eta modu guztiak erabiltzen dituztenei.

Diru-txartela erosten duen bidaiariarentzat batez besteko % 45eko deskontua izango da tarifa berriekin alderatuta; % 58ekoa BIDAI 50eko kasuan; % 68koa BIDAI 70eko kasuan; eta % 77ekoa GAZTE 70eko kasuan. Urre izeneko titulu berrientzako deskontua bakoitzak ematen dion erabileraren arabera izango da, bidaia mugagabeak egitea ahalbidetzen baitu.

Bestalde, Bizkaiko Garraio Partzuergoko Kontseilu Nagusiak 2017rako aurrekontu orokorrak onetsi ditu, 204,2 milioi eurotan, 2016an baino % 0,2 gehiago. Nabarmendutako aurrekontu-partidei dagokienez, 24,5 milioi euro aitortu dira inbertsioen kapituluan. Alderdi horretan, 4,6 milioi euro erabiliko dira honako hauetarako: Getxoko Ibarbengoako disuasio-aparkalekurako; Urbinagako trukatzailerako, bi urtekoa eta Sustapen Ministerioari dagokion gainerako % 50aren zain dagoena, 3,5 milioi euro dituen; 1,5 milioi euro Kabiezesko azpiestazio elektrikorako; 3,3 milioi euro Urdulizko metroko geltokia lurperatzeko obra amaitzeko datorren apirilean; eta 6,8 milioi euro Metro Bilbaon hainbat mantentze- eta hobekuntza-jarduketa gauzatzeko.

Aurrekontuek 111 milioi euroko partida bat bideratuko dute Barik sistemara atxikitako Bizkaiko garraio publikoko operadoreen konpentsaziora; hau da, operadoreei ordaintzeko bizkaitarren burutzen dituzten bidaien arabera.